



LAZKAOKO  
UDALA

**2022KO OTSAILAREN 24KO  
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko otsailaren hogeita lauan, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Eneritz Miranda Muxika, Felix Urkola Iriarte, Beni Goñi Padura, Iñaki Estensoro Sarasola, Joxemai Ormazabal Sukia, Josu Sarriegi Zumarraga, Marije Insausti Onda, Maialen Amundarain Irizar eta Ion Garmendia Iturbe.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2022ko urtarrilaren 27an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- SAN BENITO IKASTOLARI UDALAK EMAKIDA ADMINISTRATIBOAN EMANDAKOAREN GAIN HIPOTEKA MAILEGUA KONTRATATZEKO BAIMENA.-**

San Benito Ikastola Kooperatiba Elkarteak, Euskadi Enparantza 5ean kokatutako eraikin eta instalazioak udal honengandik emakida administratiboan jasotako ondasunaren gainean hipoteka egiteko baimena eskatu du.

Udal honek, 2021eko otsailaren 25ean hartutako akordio bidez, San Benito Ikastolari Euskadi Enparantza 5ean kokatutako eraikin eta instalazioak emakida administratiboan ematea erabaki zuen.

Emandako ondasuna Tolosako 2 zk.dun Jabetza Erregistroan inskribatutako 7857 zk.dun finka da, Tomoa 2354, Lazkaoko 136 Liburua.

Emakida administratiboa Ordiziakoa den Ignacio Pagola Villar notarioaren aurrean egindako eskrituran gauzatu zen, 2021eko uztailaren 9an, notarioaren protokoloko 1344 zk.dun eskrituran.



LAZKAOKO  
UDALA

San Benito Ikastolak egindako eskaeran zera dio: emakida administratiboaren eskaeran adierazi zuten bezala, eraikin berri baten beharra dutela eta obra hori finantzatzeko hipotekadun mailegua eskatu dutela.

Eskatu duten maileguaren ezaugarriak honako hauek dira:

- Zenbatekoa: 2.039.700€
- Hipoteka-erakundeak: Laboral Kutxa eta Kutxabank (bakoitzak %50)
- Epea: 15 urte
- Hipotekaren helburu den ondasuna: Lazkaoko 7857 zk.dun erregistroko finka.

San Benito Ikastolak hipoteka-maileguarekin finantzatu nahi duen obra egiteko obra-baimena 2021eko ekainaren 16an eman zitzaion, alkatetzaren ebazpen bidez.

Alkateak esan du hipoteka emakidaren gainean ezartzen dela.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du baimena ematearen alde daudela.

Honen aurrean, osoko bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta hirigintza, obra eta zerbitzuen batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, bertaratutako guztien aldeko botoekin honako hau erabaki du: Udal honek, 2021eko uztailaren 9an, eta Ordiziako notarioa den Ignacio Pagola Villar notarioaren aurrean egindako eskrituran; notarioaren protokolo 1344 zk.dunear, San Benito Ikastolaren alde gauzatu zen emakida administratiboaren gainean, hipoteka egiteari baimena ematea.

#### IV.- BIZTANLERIA UNITATEETAN ALDAKETA.-

Lazkaoko udalerria osatzen duten biztanleria unitateen berrikusketa egin da, eta honen ondorioz egoki ikusi da ondorengo aldaketak egitea. Aldaketa hauek baserri batzuk Lazkao entitatetik Zubierreka entitatara pasatzean datza, eta beste batzuk Zubierreka Industrialdeatik Zubierrekara, eta ondoren Zubierreka entitatea berzenbatzean. Eta hau guztia bere espedientean dagoen dokumentazioan jasota dagoela modura.

Alkateak esan du herrian beste puntu batzuek ere badirela berrikusketa beharko luketenak, eta joango direla hauek zehazten, baina oraindik hau dela planteatzen den aldaketa.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du planteatutako aldaketarekin ados daudela eta beraiek ere beste aldaketa batzuk aztertzearen beharra ikusten dutela.

Alkateak erantzun dio gaurkoak ez diola aterik ixten etorkizunean planteatu daitezkeen aldaketei.

Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren, eta hirigintza, obra eta zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako erabakiak hartu ditu:

Lehenena.- Udalerriko biztanleria unitateetan ondorengo aldaketak egitea:





Gaur egun		Hemendik aurrera	
<u>Entitatea</u>	<u>Etxea</u>	<u>Entitatea</u>	<u>Etxea</u>
Lazkao barreiatua	Granja	Zubierreka	Granja
	Gure ametsa		Gure ametsa
	Bide gain etxea		Bide gain etxea
	Txara		Txara
	Beiztin		Beiztin
	Beiztin berri		Beiztin berri
Zubierreka industrialdea	Ibarlaburu	Zubierreka	Ibarlaburu
	Imaz Zaharre Berri		Imaz Zaharre Berri
	Imaz Zaharre		Imaz Zaharre
	Imaz Berri		Imaz Berri

Bigarrena.- Zubierreka entitatea aldaketa hauekin berriro zenbakitzea, espedientean dokumentazioan jasota bezala.

Hirugarren.- Aldaketa hauen berri ematea Instituto Nacional de Estadística, EUSTATI ere aldaketen kopia bidaliz.

**V.- BILERAREN AMAIERA.-**

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, iluntzeko zazpiak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dularik.

